


BALIOZKO PROPOSAMENA

Atal honetan gure proiektuaren funtzionamendua azalduko dugu. Gure aurkezpenean aipatu dugun bezala, arazo batez ohartu ginen: diagnostiko jakin bat duten haurrek ez dutela behar bezalako laguntza eskuratzeko aukerarik. Beraz, ondorio honetara heldu ginen: diagnostiko ohikoenak (dislexia, AFN+H, autismoa) dituzten ikasleei ikasketetan behar duten laguntza partikular eta ikaslearen beharrak erdigunean jartzen dituen laguntza hori eskaintzea. Gure herrian, Urretxu-Zumarragan, ez dugu antzerako zerbitzurik aurkitu. Horregatik iruditu zitzaigun ideia ona, gizartearen behar hori asetu nahi dugulako.

Ohartzen gara dagoeneko ikasgai desberdin guztiak lantzen dituzten partikularrak existitzen direla, guk matematika, fisika eta kimika, euskara, ingelesa eta gaztelania ikasgaietarako laguntza eskainiko dugu; beste partikularrengandik desberdintzen gaituena gu **diagnostiko desberdinak dituzten ikasleekin bakarrik** lanean arituko garela da. Ikasle hauek beste edonork baina gehiago behar dute beraien garunak nola funtzionatzen duen eta honi etekin gehiago nola atera diezaioketen ulertzen duen norbait. Gu, horretarako prest gaude, ikasle hauek eskolako lanak eta gaiak ahalik eta ondoen ulertzeko eta zerbitzu bikain bat eskaintzeko.



Hasteko, gure zerbitzua Zumarragako Zelai Arizti kultur etxean burutuko da. Toki hau Zumarraga eta Urretxu herrien arteko erdigunean dago, eta hau ezin hobea da gure ikasle guztientzat eskuragarria izan dadin.



Lehen aipatu dugun moduan, guk landuko ditugun diagnostikoak ondorengo hauek dira: **AFN+H, dislexia, autismoa**. Hauek baitira ohikoenak, eta guk gure ikastaroetan landuko ditugun diagnostikoak. Gainera guk beti ahalik eta laguntza onena eskaini nahi diegu ikasleei eta horretarako erabat ulertzen ditugun diagnostikoetan jarri behar dugu arreta, eta, ondorioz, laguntza onena eskaini diezaiekegu; hori baita gure helburua.

Gure zerbitzua euskaraz emango dugu, izan ere, Urretxu-Zumarragako eskoletako gaitegi guztia euskaraz ematen da, beraz gure zerbitzua ere euskarazkoa izango da. Horrez gain, herri honetako euskararen erabilera murritzua ikusiz, ezinbestekoa iruditzen zaigu gure zerbitzuaren bidez euskara ahalik eta gehien sustatzea.

Gure zerbitzuak ordutegi jakin bat edukiko du: **astegunetan, 17:00etatik 21:00etara** emango dira klaseak. Eskola bukatzen duten ordutik, afalordura arte.

Gure zerbitzutik nabarmentzen dena **pertsonala** dela da. Bezero bakoitzak irakasle bat edukiko du; hau da, ikasle bakoitzeko, irakasle bat. Honek ikaslearen ulermena bermatzen du. Klasean denak batera egongo dira, baina ikasle bakoitzak irakasle bat duenez, bakoitzaren laguntza pertsonalizatua, bakarkakoa, gertukoa eta dedikatua izaten jarraituko du. Hori dela eta, bost irakasle garenez, orduko bost ikasle izango ditugu ikasgelan. Ikasleak denak mahai handi batean eserita egongo dira, bakoitza bere irakaslearekin. Mahaiak bananduta egotea saihestu nahi dugu, ez dugulako ikasleek bakarrik edo azterketa batean bezala senti daitezen nahi; gure helburua, giro atsegin eta gertuko bat sortzea baita.



Hasiera batean ikasle bakoitzari 3 ordu eskainiko dizkiogu astean. Bezeroak ordu horiek aukeratzeko gai izango dira; hau da, gurekin kontaktuan jartzen direnean guk momentu horretan libre dauzkagun orduak erakutsiko dizkiegu eta beraien beharren arabera egingo dute orduen aukeraketa. Ikasturtea aurrera doan heinean, azterketak eta lan-entregak direla eta, agian ikasleren bati orduren bat gehiago sartu behar zaio azterketaren aurretik gaia guztiz ulertzen duela ziurtatzeko, eta horretarako ordutegietan aldaketak egon daitezke; hala nola, beharrezkoa izanez gero, momentu horretan azterketarik ez duen ikasle bati eguna libre ematea ordu hori behar duen beste ikasle bati eskaintzeko.

Webgune bat ere izango dugu gure esku, eta bertan “Bezeroekiko harremanak” atalean ondo azaltzen dugun moduan, bezeroek guri buruz jakin nahi duten guztia aurkitu dezakete, egutegia barne. Bertan ordutegiak begiratu eta ideia bat egiten joan daitezke gurekin hitz egiterako garaian gauzak argiago izateko.

Laburbilduz, gure zerbitzuarekin lortu nahi duguna, ikasle bakoitzari behar duen arreta pertsonalizatua eskaini ahal izatea da, ingurune seguru, eroso batean. Horrela ikasleen potentzial osoa garatu ahal izateko.

